


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

230n. zenbakia
bagilla-ekainilla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ARREGI TA BELAR'TAR JOSU

**KRISTIÑAUA, muiñetaraño
ABERTZALE, zintzoa
EUSKELTZALE, benetakoa
EUSKERAZKO IRAKASLE, bikaiña**

BARRENDIK ETA ARRITURIK BEGITZEN DODAZ GIZONAK...

- * "Berrogei oiukatzen dautse, buruzkain dabilzanai".
- * "Bere lan-sari apur ori luzatzen dabe, inori eskatu barik".
- * "Gerrikoa estutzen dabe, prakak ez beratutearren".
- * "Saboirik ez dautse emoten, eskuak garbitzen dabezanai".
- * "Burusurik eginda dabiltz, zintzoaren burua ez onartzearren".
- * "Gogoan daukana zintzo esaten dabe, besteak zer esango ete daben gebitu barik".
- * "Geiago gura dabe sabel-zorria edozein-eratarira iruzurtu, euren buruak guzurraz bete baino".
- * "Aurpegia apurtu dautse, ain gogorra daukenai".
- * "Euren itxura jokutzen dabe, edozein itxura daukanari jokoa ez egitearren".
- * "Arau gabeko antzera, uztai bakarretik sartu nai ez dabelako".
- * "Ulea jausi egiten-jakie, miin puntan ulerik ez daukelako".
- * "Geiago gura dabe nork-bere zarpela ustu, iñoren lepotik aberastu baino".
- * "Aizea artzen bialtzen dabez, danen ontzitik zurgatzaille dabilzananak".
- * "Jan barik egon gurago dabe, oinarriari uko egin baino".
- * "Zuri barik egonda be, illuntasunik ez dabe ikusten".

"Iñor ez danak"

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1998'ko EPAILLA'ren 5'an

IRARKOLA EUSKALERRIAN XVI GIZALDIAN

Gutenberg'ek, XV'gn. mendearen erdirantza, irarkola asmatuta laster, 1456'an argitara eban bere lenengo liburua, Biblia. Liburuak ataratzeko era ori, ederra zalako nonbait, beingoan zabaldu zan Europa'ko bazter guztietara. Baita Euskalerrira be. "Navarra oraindik bere erregetzaren jabe zan garaian ezagutu zan Iruñean Bricar'en imprimategia". 1489'an latinez atara eben idatzi bat; andik laster Logroño'ra aldatu zan eta gero, Cisneros Kardenalak deituta, Alkala de Henaresera joan zan, Biblia Poliglota irartzeko.

Migel Egia, legorretarrak diñoenez Brocar'ek, suiñak noski, ta Anvers flamendarrak inbat liburu atara zituen Lizarra'n, XVI'gn. gizaldi barruan ziurki; Anvers gero Iruña'ra aldatu ta an, 1561 an, Santxo Elso'ren Doctrina argitaratu eban, euskeraz eta erderaz. Auxe dogu Euskalerrian euskeraz atara zan lenengo liburua; Etxepare'rena, bada, 1545'an izan zan argitaratua.



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

ARREGI TA BELAR'TAR JOSU

Aurtengo Otsaillaren 20'an, zaratarik egin barik, bere urratsik aundiena emon eban emengo bizitzatik, amaibako zoriontasun bizitzara joateko; au da, geure zeruko Aitarene txerera joan jaku betirako zoriontsu bizi izateko.

Urrats ori emon eban geure Begoña'ko Amagandik ur egoala, "Virgen Blanca" deritxon geixotegian, ain zuzen be.

Geure Josu'ren nortasun eta gizontasunaren bareiztasunak asko ziran eta gatx lerro gitxitan eta labur esateko. Bere bareiztasunen artean urrengokoak gogoratzen doguz:

1'go.- KRISTIÑAUTASUNA. Ori argi ta garbi igertzen jako bere ekiñaldi guztietan. Sarritan, bere emaztea itun ikusten ebanean auxe esaten eutson; "Poztu zaitez Pili, egun bat gitxiago peitu jaku zerura joateko-ta". Ori entzunda bere emazte gaixoak (aspalditik oso geixorik dagola) poz aundiaz erantzuten eban: "ori bai ondo, bai" ta olan bake-bakean geratzen zan.

Edo beste batzuetan, atsekaberen bat etortzen jakonean: "Zeozer euki bear da zerua irabazteko".

Bere Parrokian be laguntasuna emoten eban eta al izan eban arte, igandeetako Meza Deun baten irakurgaiak irakurten ebazan.

2'gn.- ABERTZALETASUNA. Bere Aberri Euzkadi biotzean eroian eta ludi osoaren gañetik ipinten eban. Onetaz, al izaten eban guztietan, zabalkundea egiten eban nun-nai eta edozein notiñekaz, batez be auteskunde egunetan, osasun-aldeetik geixo-samar egon arren.

3'gn.- EUSKERAZALEA. Al izaten eban guztietan euskerea erabilten eban, bere izkuntza maitea orixe zalako ta gero, beste guztiak naiz eta euren artean prantzitarrena, englandarrena, gastelarrena, Iatiña ta gerquera be apur bat jakin.

4'gn.- EUSKAL IRAKASLEA. Gai onetan lenengoko maillakoa zala zalantza barik esan lei. Euskerazaleak Alkartean aldi baten euskerea irakasten eban, baita batzoki batzuetan be: Erandio goikoan eta Ugao'n, gogoratzen garala.

Orrez gain, bere etxean be bai ainbat ikasle izan ebazan,



euren artean neu be bai. Eta ori edozein euskalkitan irakasten eban, beretzat danak ziralako euskerea ta orreri buruz euskereak ez eukan ezelako ostoporik; baiña geien atsegin jakona bizkaierera zan. Irakastean argituten ebazan zelako ezbardintasunak dagozen batetik bestera ta olan. danok ikusten genduan zelan esaten dan euskalki baten eta zelan bestean.

Onez gain, bere ikaslea dan Egieor'tar Miren'egaz elizti bat egin eban leenengo maillako ikasleentzat; iru ataltxotan dago osotuta, baiña irugarrena laster argitaratu bear da, bi edo iru orrialde bakarrik dagozelako amaitzeko. Uste dogu lastertxu argitaratuko dala.

Ori bai da irakasle JATORRA izatea!

Esandako izpitxuakaz ba-daukaguz zertzelada batzuk jakiteko zelakoa zan adizkide zintzo ta leial izan dogun Arregi'tar Josu.

Goian bego ta, Jainkoak jarri dauan tokitik, bere laguntasuna bialdu daiskula emen geratu garan bere senide ta adiskideai.

Agur bero bat, Josu ta ... GERO ARTE!

Egileor'tar Jon

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

IZARO

(1997 - 4N. SARIA)

Domeka-arrasti baten, zeregiñik ez neukala-ta, Bermeo-ingurura joatea erabagi neban. Egualdi ederra zan eta Bizkai'ko itsas-ertzaren edertasuna gozatzeari nire asmoa.

Oiñak Mundaka'n neukazala, aurrean Izaro ugartearen ikusi neikean itxasoaren barruan bakarrik eta isil-isilik, itxasoko olatuen orroa ta danbadakaitik eta bertan bizi diran itxas-txorien garrasiakaitik izan ez balitz.

Aldi baten frantziskotarren otoiz-eta gogarte-leku izateko eregi zan monastegi baten ondakiñak be ikusi zeitekezan toki aretan.

Nire lantegiko lagun batek beintzat olan azaldu eustazan gorabera oneik. Bera joan ei zan txanelatxu baten Izaro ikusteko asmoz eta bertan dagoan berezko kai baten ia-ia txanelatxuak atxaren aurka jo eta ondoratzeke arrisku ederra izan eta gero, eldu ei ziran Izaro gaiñera.

Izaro'k 532 neurki inguruko luzerea dauka eta 117 neurkiko zabalera eta 45 neurkiko goiera. Bere lurra garana ta margo gorrizkaduna zala esan eustan lagunak, inguru onetan beste iñon aurkitzen ez diran bedarrak eta zugatz txikiak ugari dirala.

Azkenengo urteetan Bermeo'ko Udal-Batzak, gogo ona agertu-gurean, tropikoko zugatzak sartu ei dauz ugarte osoan eta itxura bereizti bat emon gura izan dautso, Karibe'n aurkitu geinkezan ugartearen parekoa izateraiño.

Baiña, zori txarrez, dana izan da kaltegarri bertako landarak eta bedarrak galtzen joan diralako, zugatz orreik ugartearen sortarazo daben lur-kentzearen ondorenez.

Gure bear-lekuko Jon bermeotarraren berbak buruan biraka nebazala...

– Arrastion, gazte! iñostan abots zoli batek atera ninduan neure burutapen oneitatik.

– Bai. Arrastion– erantzun neutsan neure azkuntza ona agertuz.

– Begiak urten-bearrean ikusten zaitut Izaro'ra begira eta ugarte oneri buruz zeozer geiago jakin gura ete dozun bururatu jatelako etorri naiatzu, denporarik galdu barik, ni gaur bizi nazen etxetik.

– Ederto, oso-osoan igarri dozu. Niri baiño geiago edeskiak entzutea atsegin jakonik ez da iñor izango.

Zeuk gura dozunean asi, baiña lar luzetu barik, orain gaba arin egiten dau-ta.

– Ea ba da, –esan eustan, betaurreko biribilduna eta kaska-motza zan gizon txiki eta potolo arek.

1422n. urteko otsaillaren 27'an Bermeo uriak, orduan Bizkia'ren buru zanak, emon eutsan Izaro ugartearen Frantzisko'tar lekaide bateri lekaide-etxe bat eregi egian. Orduan Izaro'n talajeruak baiño ez ziran bizi: batez be negu-aldian baleak agertu zirala adierazten eben, baita iñoz arerioak zetozela edo ekaitzen bat urreratzen zala be jakin-erazoten eben.

Frantziskotarren alkartearen arau-zaleak edo "observantes" zeritxoena zan. Izen ori arauak zeatz bete eta lurteko ondasunetatik urrin bizi ziralako ezarten jakon Lekaide-talde oneri.

Arteaga'tar Martin zan lekaide-buruaren izena. Ez dakigu ziur nongoa zan, baiña semez Busturi-aldekoa zala diño. Beintzat asagokoa ez zan, Urdaibai-inguruko zala bere euskereak argi agertzen dau-ta.

1422n. urteko orrillaren 2'an Martin anai au eta Undabarrena'tar Juan anaia, Albiz'tar Liño anaia eta Erkoreka'tar Martin anaia batera sartu ziran, frantziskotarren lekaide-taldearen barruan, Izaro ugartera.

– Alan da ze, guztiak euskaldunak? –itaundu neutsan edestia aurrera jarraitzeke aukerarik emon barik.

– Bai, –erantzun eustan–, Eta ez ori beste barik, geienak inguru onetakoak ziran: Busturi, Gernika, Mundaka eta Foru'koak.

"Binke", interesgarri neritxon edestiaren azkena jakingurean, mezedez aurrera jarraitzeke eskatu neutsan.

– Izaro'n bizikerea ez zan bapere eroso. Lekaideak euren gorputzetan asmau leikeezan itxasoaren orroak, gosearen erpakadak eta otzaren oiñazeak ez ziran makalak. Ori dala-ta, neke orreik leuntzeke asmoz– edo, orduko agintariak emoitze batzuk egin eutseezan, bizi-baldintzak obetu-gurean. Esaterako, Felipe II'ak (1527-1598) eta Felipe III'ak (1578-1621) agindu zeatzak emon ebezan urteko diru ta laguntzak Izaro'ko lekaide-etxera eldu zitezana. Felipe II'aren emaztea zan Valois'eko Isabel'ek lauki eder bat emon eutsen, Lauki onek "Izaro'ko Andra Mari eta umea" artu eban izena. Urteko 200 meza eskatu eutsezan lekaideai ordain lez.

Apurka-apurka Izaro'ko lekaide-etxea andituz, bere etxurea osotuz, joan zan eta beronen erti ta kultura-balioa be andituz joakozan.

Baiña kondairarik geienak lez, ez eban azken ona izan kontatzen nagokizun eta gertatua dan edesti onek.

1596n. urteko iraillaren 1.^oan itxas-lapur frantzetarrek eta anglandarrak agertu ziran gabaz Bermeo'ko itxas-ertzaren sarreran. Itxas-lapurak erasorako gertu egozala, Bermeo'ko arresiaren barruan ez zan iñor agiri eurreragoko gudaldiak dana suntsituta itzi ebena. Kanpaiak jo ebezan eta berreun gizon inguru agertu ziran albo-errietatik. Itxas-lapurak gatx ikusi eben euren egitasmoa betetea eta, bira-erdi emon ondoren, itxas-zabalerantza abiatu ziran eta an zain eukezan beste sei itxas-ontzi aundigaz alkartu ziran.

Itxas-lapurak lasai ikusten ebezan euren buruak itxaso sakonean, Bermeo zaintzen eben gizon ausar-tengandik urrin.

Ori orrelan izanik, euren otziditik ontzi bat urten eta Izaro'rantza abiatu zan eta bertan kairatu ondoren eraso ta lapurretea asi ebezan.

Ordurako, Lekaide-etxeko arduraduna zan Zabala'tar Juan anaiak kalizak eta irudi santuak sakristitik atera eta ugarteko leiza baten ostendu ebazan, toki eskutu baten, erasotzailleak aurkitu ez egiezan.

Beste frantziskotar bik, Lezama'tar Antonio anaiak eta Olabe'tar Sebastian anaiak, ez eben ain zori ona izan: Siniste-okerreko itxas-lapur areek arrapau ebezanean, era guztietako oiñazeak ezarri eta lotsakizunik aundieneko ekintzak bete ebezan eurengean. Lekaide-etxe osoa suntsitu ondoren, logelak, garautegia, jan-tokia, sukaldea ta ardautegia laskitu ebezan, baiña danbada-autsa ugari erabilli arren ez eben lortu eleizea ta ibiltegia edo "klastroa" suntsitzea. Erasotzailleak "hugonoteak" edo protestante frantzetarrek izan eta eleiztarrai ogetamar urte baiño geiagotan Frantze-aldean txarra egin

ondoren, eleiz-irudiak apurtzen asi ziran: Andra Mari Doatsuaren esku ezkerre ta, Irutasunaren irudiaren burua apurtuta gero, Santa Katalina'ren irudia erdi bi egin eben eta gero ganibetagaz guztiai labainkadak emon eutseezan.

Izaro'ko lekaide-etxea austu ebenak itxasoratu ziranean, iñok ez daki alan-bearrez ala Jainkoaren zigor lez, bat-bateko ekaitz batek arrapatu eta Munda'ko Lamiaran baseleizearen barranean atxa jo ondoren, guztiak ito ziran, bat izan ezik. Au ontzi bateko txoa zan eta uger egiten indar guztiak galdu ta, doi-doi eldu zan itxas-basterrera.

Lekaideak eta an ziran erritarrak zurtz eginda geratu ziran eta jazokizun ori zeruak bialdutako zigor lez artu eben.

Arrezkero Izaro'ko lekaide-etxea barriztatu bai egin zan, baiña 1719n. urtean bein betirako itzi eben lekaideak.

Izaro'ko triskantzak Sir Francis Drake (1540-1596) itxas-lapur anglandarrak egin ebalan esan zan, baiña ori ez da orrelan. Oraindik ziur itxas-lapur areik nortzuk izan ziran jakin ez arren, ba-dakigu "La rochelle" itxas-portu frantzetarra izan zala euren abia-puntua.

—Zurtz eginda itzi nozu edestu daustazun kontakizun orregaz, baiña nondik dakizu zuk orrenbeste?

— Ai, gazte! Ni Bermeo'n bizi dan edestilari mundakar bat nozu eta oraintsu idatzi dot Izaro'ri buruz liburu bat.

—Neu egon naz ba! Ainbeste gorabera jakiteko...!

Zuk edestu daustazun kontakizunetik nik gauza bat argi atera ba'dot, auxe da: Izaro Euskalerrria ba'litz lez ikusten dodala eta itxas-lapurren eraso Euskalerrriak mendeetan zear jazan izan dauan kanpotarren etengabeko eraso. Baiña azkenean, txiki eta aul agertu arren, EUSKALDUNOK NAGUSI TA GARAILLE!

LEGARRETA'tar ASIER

LAPUR BATEN AUTORTZA

Beñola, erririk erri ibiltan zan lapur dollor bat joan zan autortzera.

Guzur fa abar bere barru loia azaldu bitartean, abadeari amar ogerleko atara eutsozan sakeletik polito-polito.

Batetik-bestera, ara ta ona ibilliaz bizi zala esan autsonean abadeari, onek, itxura txarra artuz, itaun au egin eutsun:

—Ez dozu ezer ostu?

—Bai, jauna, amar ogerleko.

—Jaubeari, emon bear dautsozuz, ostantzean ez dautzut parkamena emongo.

—Zuk artu gura dozu, jauna, nire zor ori?

—Ez, nik ez. Emoiozu jaubeari.

—Ta jaubeak gura ez ba'dau?

—Orduan zeureztat gorde eizu.

Eta gizon dollor arek, esker andiak emonda, alde egin eban.

X. Peña'k

"Euskerazaleak"en ikas-liburuan.

Euskal-esaera:

Txar sortu ta txar azi,

txar izango da beti.

MEZA ODOLKI USAIAREKIN

Lengo astean izen aundiko eliz batera joan nintzen adiskide aundiaren illetara. Iri nagusiko alderdi zarrean giñen.

Zer dauka ikustekorik illeta onek idazlan onen izenburua-rekin?. Eliza artako erretora nai zuena egiten ibilli zen meza artan eta elizkizuna ez zen oso egokia izan. Eliza bete betea zegoen. Amar apaiz meza ematen.

Esan ziguten bi izkuntzetan izango zela Meza. Beraz meza emalleak, erretorak bi lerro euskeraz egiten zituen eta ondotik beste bost lerro erderaz. Izkuntza batetik bestera lasterka, jauzika zijoan tximista bezala. Itz batzuek irakurtzen zituen, beste batzuek berak asmatzen. Erriarentzat berriz itz aien mamia ulertzea zailla. Asmo nagusia nundik nora zijoan ez bait zen ikusten! "Neri ori egitea atsegin zait", esaten zigun erretore ospetsu orrek. Erria berriz era bat galdua zegoela agertzen zuen. Galdera bat orduan: "Meza apaizaren atsegiña lortzeko ote da?", egin dezakegu galdera au, edo ez ote da Elizaren eginkizun bat, garbi oso garbi, azaltzeko?

Gañera mezaemalleak naita txori otsa ateratzen zuen, moxorro arpegia izango ba'lu bezala.

Itzaldia ere aipatu bear: filologiko ikaskaia, "nerea" ta "gurea" nola esaten diren, zer dakusguten eta nola egiten duten. Sinismenaren berotasunik ez zen iñun agertzen.

Erriaren ixiltasunak uts egin ba'lu bezala mintxo zen.

Jaunartze ondotik zuzia, argizaiola, loreak eta kea ekarri zizkiguten. Eliza argitu bearrean, barrengo aizea zikindu ziguten baita illundu.

Meza ondotik, gogorrena sakristian gertatu zen apaizak bildu zirenean. jantziak aldatzeko. Batek ozenki esan zion meza emalleari, gorri gorri eginda: "Ez dugu ulertu zer esan dezun meza garaian. Erria baraurik gelditu da...".

Erretoraren erantzuna auxe izan zen: "Barrendik ateratzen zait eta maite ditut gauza oiek...".

Beste apaiz bat mintzatu zen Erria ez da ausartzen zer pensatzen duten esaten beldurtu egiten dire".

Beste aldetik ori ostikua euskararentzat. Ori meza bilingue deitzen dute. Erritar aotik auxe entzun genuen: "Orrek euskerarik ez du maite..". Sagaratzeko itzak entzuten ditugula, bi itz euskaraz, bost erderaz, itz denak ez batean ez bestean, garbitasunik ez digu eskuratzen nastu berriz bai. Erria nasten nun ikasi ote dute? Nun ikasi ote dute meza odolkiaren antzera egiten? koipea barazkiekin nasten. Izkuntzak liturgian egitazko izkuntza bear du izan eta ez odolki puxkak... Izkuntza erri baten arnasa da.

LATXAGA

>=< >=< >=<

MUTIL PINPIRIÑAREN IPUIÑA

Beiñola, eder-ederra zan artzain batek, bere edertasunaz arrotuta, basoko maite-minduriko maitagarriai ez eutsen jaramonik egiten. Basoko gizakume guztiak beratzaz maitemintzen ziran, baiña berak danak zapuzten ebazan.

Arrotasun orren aurrean, Cupido'k artzaiña zigortzea erabagi eban. Bein baten Narkis eritxan artzain gaztea iturriko ur gardena edatearren makurtu zan, eta uretan ikusi eban bere aurpegi eder-ederraz maitemindu zan.

Ordutik, Narkis gazteak ezin egikean urak eskintzen outsoen bere iruditik aldendu, eta bere aurpegia ikusi-ala, bere

maitasuna gero ta andiago, eta bein baten bere buruarekiko maitasunaz il egin zan.

Basoko maitagarriak urrengo egunean artzaiñaren gorpua aurkitu eban, eta leku aretan lora bat sortu zan. Margo politeko lore au azubil luze batetik uretara makurtzen da, ispillutako bere aurpegia ikustearren.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ

MAITALEAK

Izen au aukeratu dot euren bizia beste askoren alde ixurri dabenen jokabidea agertzeko. Munduan era ezbaardiñetako jendea dago ta jokabideak, era berean, alde aundikoak dagoz. Guraso asko arrigarriak izan dira euren siniste ta lanetan ta bizitzako ardura guztia zan alkarri lagundu ta seme-alabei ezi-bide on bat emotea.

Jokabide onek sortzen eban sendi jator bat ta sendiko lenengo izarra zan senar-emazteen arteko alkartasun zori ederrekoa. Laguntasuna ta poza ziran sendiko eguneko lanen gidariak. Era onetan etxeak eta soloak, frutu onak emonez, aurrera joiezan. Guztiak ziran aitagaz ta amagaz batian sendi bizitza eder baten sortzaille bizigarriak.

Euskal sendi maitiak ba-eban bere izate ederrean aztu ezindako ekandu on bat. Zertarako da nire bizia galdezka egoan. Ain denpora laburra gitxi da gizonarentzat. Barruak bizitza luzea eskatzen eutson-ta amai barik zorionsua. Orren inguruan ebillan ba senar-mazte alkartasuna, euren lana ta ardura bizia, umeak zuzenbidean, gizontasunean ta sinismenean azi ta ezitzea.

Maitasunezko eziera onak, ondoren, ale onak emon bear ditu gizartean. Ta alan izan zan Euskalerrri maitian. Begiratu sendi, udal, jakitun, langille ta euskal alkargoetara ta gizon ta andra zentzundun ta aintzagarriak agertuko ziran nunnaitan. Antxiña, aldi batean Bilboko Jesusen Biotzaren irudia apurtu nai izan eben ta euskal seme erriar leialak zaindu eben guri bizia emoten deuskun Jesusen irudia Bilboko errian.

Euskalduna abegi onez artua izan zan urriñetako lurraldeeran ta euskal abizenak, parra-parra, ezilkortuta geratu dira itxaso nausien beste aldeko lurraldeetan. Alan jokatu eban Simon Bolibartar euskal endakoak. Bizkaitik Amerikara ogi billa joan ta askatasun ogia emon eutsen ainbat Amerikarrei. Era berean ainbat eta ainbat euskaldun gailen geratu dira mundu zearko liburuetan erriari on egiñez. Ori da bere izakerea, ori da gizartetik artu dauan gatz ongillea.

"Emon da zabal zazu munduan frutua" diño euskal abestiak ta egiz, euzkotarrak ez dautso utsik emon abesti ederraren maitasunari.

Euskalduna gizon legez ongillea izan da mundu zear, baiña kristau legez gorputz, arima, jakituri ta indar guztia errien zerutar biziari eskeini eutsezan. Sinismena orokorra da. Kristo zuri, gorritzka ta baltz guztien alde gizatu zan ta iñor ez eban banatu bere Golgota mendiko eriotz orduan.

Gizadi guztiaren alde odol gorri ederra ixuriaz, betirako askatasun bideak zabaldu zituan.

Euskaldun jendeak, andrazko ta gizonezko, ondo ezagutu eben Jesusen Kurutzeko guztienganako gurari maitekorra. Osorik eta guztientzat eskeini zan. Ta euskaldunak esan eben: Kristo, emen gaukazuz, zure grazia ta maitasuna munduan zabaltzeko gertu. Ordu-ezkero zenbat eta zenbat andrazko ta gizonezko joan diran lurraren inguru-marietara egiaren argia ta maitasuna zabaltzera.

Askok asko jasan eben urteen joan-etorrian Amerikar, Aprikar ta Asiatarren oroimenez, beti eta beti, Jesusen maitasunaren izenian. Euren erri ederra agurtu ta joaten ziran urriñetako lurraldeetara Jaungoikoaren berbiaz erri arei bizia indartzera. Gogo onez joan ta alegintzen ziran betiko biziaren argi barriz lagun areik argitu eta betiko zorionaren erederu egitera.

Egiz, iñork ez daki zenbat on egin eutsen euskal misiolariak lurralde arei. Sarri pozetan, noznai ezbearretan ta beti, gogo biziagaz argia ta maitasuna zabaltzen, Jaunak sorturiko lur bedeinkatu aretan. Gure Balendin Berriotxoak zer esango eta leuskigu, gaur, erri arei esker miñez... Bera on egiten ta an eukan etsaia bizia kendu nairik... Igeska ta ostu-ostuka ibilli bear izan eban lanik ederrena egikeran.

Bere lan-gogoa ta egiteak gazterik amaitu jakozan. Etsaiak billatu eban ta ez eutson parkatu. Arerioraren poza zan Balendin misolariari bizia kentzea. Ta egun negargarri baten ezpata zorrotzagaz ebagi eutsan samea. Odola, arnasea, bizia, dana, uriolka, eskini, eutsozan, gogoz, maite eban bizi-emoilleari.

LUR GAIÑEAN

I

On egitea gauza aundia, beti, izan da lurrean, giza-semea lan ortarako sortua da gizartean; burua argiz gidari legez biotza maite-legean era orretan sortu izan zan gizona lurren gaiñean

III

Euzko gogoa egizale da egotik ipar-aldera, sinismen argiz indarturikan dauka izate berbera; dedu ta lotsa agertzen dabe alkarganako onbera, beti, lotsa aundiz ikusirikan euzko lagun izakera.

II

Euskalerrria begiraturik ederra al da bizi...? galdera oni erantzuteko zabaldu daigun begia; begira gora, begira bera ederra da gizartia lagundi onek ba-dau maitasun bararizko ongillia.

IV

Euzko semeak erri ta kanpo ibili ziran on eiten, ta Amerikarrak gogo onagaz diardue goralduten; euzko izarrak geratu ziran lur maiteak argituten, geroztik poza bizi bizirik egiz dabe agertuten.

V

Sinismen bidez begira daigun gogo onez alaiturik, zenbat bizitza eskeini ziran maitasun garrez urturik; misiño alde bizitz guztia borondatez opaldirik era orretan lan egin eben anai barriak sorturik.

PAULIN

ON JESUS GARITAONANDIA'RI

I

On Jesus maite zugana nator
Agurtuz zorientzera,
Bertso bitartez lenoko gure
Guraso zan-en antzera.
Ondarroatik Zornotzan zear
Begoñaldera joan zera,
Bilbo gaiñeko kristau zintzoak
Zure ondoan batzera,
Apaiz bezela merezi dezun
Artalde on bat zaintzera.

II

Gure errira etorri ziñan
Apaiz talde on batetan,
Eleiz giroa asko galduta
Zegoan urte aietan.
Baiña guztiok erria nola
Maite zenduen benetan,
Bear bezela lana egiñez
Astegun eta jaietan,
Erria laister jarri zan berriz
Galduta zeuzkan bidetan.

III

Garai artako une askotan
Ibili ziñaten larri,
Agintarien aldetik ainbat
Oztopo ta koska sarri.
Zuen jokerak jartzen zituan
Eurak naiko barregarri,
Jainkoa eta euskera ziran
Lanean zuen oiñarri,
Gure erriko eleizarentzat
Izan ziñaten ongarrri.

IV

Gauzak orrela, zenbat meatxu
Poliziagandik jaso,
Eta alare eleiztarrerri
Ez zenien jakin-azo.
Zuzentasunez ari ziñen da
Ezin ezertxo galazo;
Baiña otsoak gau illun agaz
Baliaturikan oso,
Euren aldetik izan zenduten
Gau batez ainbat eraso.

V

Ala ta guztiz zueik jarraitu
Zenduten zeuen lanetan,
Eta Ondarru asi zan berriz
Bazkatzen euskal larretan.
Giro berri bat sortuaz gure
Eleizan eta kaletan,
Euskera zuzen erabiliatz
Bear zan leku danetan,
Zintzo jakatu zendutelako
Eskerrak bene-benetan.

VI

Eskertzekoa izan da zuek
Emen egindako lana,
Denpora artan eleiz giroa
Otzituta zegoan dana.
Aurretikoak egiten zuten
Arakamaren esana;
Bildur zioten ta egin bear
Arek agintzen zuana,
Gure izkuntza zapaldu nairik
Erderaz etzekiana!

VII

Ipar-kaleko kantoitik urbil
Zenduten zuen egoitza,
Eta nai ta ez izango dezu
Kale ontako oroitza.
Orain ordea uri-aundiko
Ur-sakonetan zabilta,
Ori dela-ta ez aztu emen
Egin zenduan bizitza,
Izan gogoan lagun Luis Mari
Bitxor eta Karmen Baltza.

VIII

Mutikotatik eman zenion
Jainkoari zeure itza,
Eleiza eta euskerarentzat
Izan da zure bizitza.
Orain artean lengo bidetik
Zintzo jokatzu zabilta,
Baiña Begoña'n ezingo dezu
Nai-aiña euskeraz mintza,
Eta euskerak, i galduko ote
Iztun on baten zerbitza?

IX

Begoña'n ere egongo dira
Euskerearen etsaiak,
Ori orrela delako ezin
Gara konpondu anaiak.
Denok ditugu errazoi onak,
Denok geure esan naiak;
Baiña ardien jokabidea
Ezagutzen du artzaiñak,
Gure izkuntza guk bear degu
Ura bezala arraiñak

X

Gaillurreraiño iritxi zera
Ames guztiak loratu,
Orko txoriak ez dezatela
Zure kanturik aldatu.
Ondarroatik biotz-biotzez
Auxe nai dizut eskatu:
Bide zuzenez jarraitu eta
Euskal baratza jorratu,
Emen jokatu zendun bezela
Begoña'n ere jokatu

Azpiri'tar Jose Mari

BAKIOKO OSASUN ZERBITZUA ETA EUSKEREAA

Udal administrazioa, erriko irakaskuntza eta osasun zerbitzuak, arean da, erritarrengandik ururren dagozan zerbitzu publikoek, euskerea bazterbartzertuta euki dabe istorian zear. Leenengo arlo nagusi bietan aurrerakada aundiak egin eta egiten badira be, osasun zerbitzuen arloan, barriz, ez da ezer be egin eta leengoetan jarraituten dau euskerearen egoera txatxarrak. Osasun zerbitzuek euskereari Bakion ez deutsoe ezelango lekuri egiten, orretarako gauza ez diralako. Ondorioa: berorreek euskaldunak baztertuteko tresna biurtu dira.

Urteetan, erderaz jakin barik osagile eta gaixozain erdaldunengana joan bear izaten eben bakiotarrek. Areek, baina, euskaldunak ez izankeran, sortutako ulertuezin edo okerulertzeakaitik, sarritan gorriak ikusi bear izaten ebezan. Oraindinokarren be, ez dira gitxi itzultzailearenak egin bear izaten dabezan ume edo zaar gaixoen etxeko senitartekoak. Alandaze, egoera baztertzailan bizitera beartuta dagoz euskaldunok, euskerazko zerbitzurik ez jakelako emoten. Benetan egoera latz eta lotsagarria euskaldunak diranontzako, batez be, zaar eta umeentzako. Zerbitzu orreek zulo itzela dauke: euskaldunoi euskeraz ardurea artuteko ezintasuna. Izan be, osagile, gaixozain eta gaixoen arteko agozko artuemonan eragile erabakiorra izan leiteke edozein gaixotasun osatuteko sasoiaren. Orrelango egoeretan, baina, artuemon artzailen artean galtzaila beti euskalduna izaten eta izango da.

Bakion osasun zerbitzuak euskeraz izan daitezala sendoro eskatu bear dogu. Bakion euskerea izkuntza ofiziala izan arren, osasun arloa errenka dabil kontu orretan. Bakion osasun zerbitzu duinak eta osoak izateko borondate politikoa bear da. Erantzukizuna agintariena da eta. Borondate politikoa ori Udal eta Eusko Jaurlaritzaren menpean dagoan Osakidetzarena da, izan be. Eurok artu bear dabez egoera ori konponduteko bearezko diran neurriak. Izkuntza politikearen barruan konpondu bearreko arazoa da izan. Ez daigun aaztu. Gernikako Itunetik garatutako legediak, Euskerearen Legea, osasun zerbitzuetako bearginakazko artuemonak euskeraz izateko eskubidea bermatuten dauana. Euskaldunoi osasun arloan zerbitzua euskeraz emotea betebearezko baldintza eta eskubidea da, eta ez besterik. Osasun publikoak danoi emon bear deusku eta zerbitzua.

Bear be, osasun zerbitzuak euskaldunduteko plangintza bear da errirako. Plangintza orren aldeko ekimenak (ekimen politikoak) bultzatu bearko leukez Udalak, baita goragoko mailako plangintza eskatu be. Au da:

- Udalerrri eta eskualde euskaldunetan (Bakion) osasun zerbitzuak euskeraz be emotea.
- Gaixoetxeetan dagozan arrera, argibide eta osasun zerbitzu orokorrak euskeraz be emotea.

Bakio Udalak osasun zerbitzu euskaldunak errian izan daitezala eskatu bear dau. Bakio lako erri euskaldunetan erriko osagile edo gaixozain lez bear egiteko euskeraz jakitea bear bearezko izateaz ganera, gura ta gurazkoa be izan bearko leuke. Gurea lako erri euskaldunera pertsonal euskalduna bialdu bear dabe eta ez pertsonal erdaldun utsa. Osakidetzak ez dau euskeraz jakitea gogotan artuten osagile eta gaixozainen bearleku aldaketak egiten dauazanean, aurki; ezta zerbitzua erri euskaldunetan emon bear danean be. Osakidetzak berak goian aitatutako legea ez beteteaz ganera, euskaldunak baztertuta daukaz euki.

Arazo au dala eta, UEMAk aurtengoa osasun zerbitzuak euskaldunduteko urtea izan daitela eskatu dau. Eta Euskalerrriko udal, alderdi politiko, sindikatu eta erri alkar-teei, bakotzak bere arloan, osasun zerbitzuak euskaldundu daitezkan bearezkoa dan plangintza egin daiela eskatuteko adierazo gura deutse. Plangintza ori egin eta indarrean imini artean, batez be erri euskaldunei begira, premina andiko sei neurri artuteko be eskatu dau UEMAk. Ona emen neurriok:

1. Aurrerantzean udal euskaldunetara (Bakio) osasun zerbitzuetako beargin (osagileak eta gaixozainak) euskaldunak bialduteko.
2. Udal euskaldunetan (Bakio) onezkeroan bein betiko bearlekuak daben profesional ez euskaldunak euskera ikasteko askatuteko.
3. Beinbeineko beargina izan, baina errian 3 urte baino geiago egin dabezanak euskera ikasteko askatuteko.
4. Beinbeineko beargina izan, baina errian 3 urte baino gitxiago egin dabezanentzako euskerazko ordu biko ikastaroak emoteko.
5. Osasun zerbitzuetako bearginen batek bere burua euskaldunduteari uko egin ezkerroan, erri ez euskaldunetara bialdu eta utsik itzitako bearlekurako euskalduna ekarteko.
- o. Gaixoetxeetan dagozan arrera, argibide eta zerbitzu orokorrak euskaldunduteko plangintzeari ekiteko.

Bakio erri euskalduna dalako, osasun zerbitzu euskaldunak jagokoz. Alandaze, Bakio Udalak, bere eragin eta pisu politiko guztia erabiliz, neurriok bere gan artu eta Osakidetzari eurok aalik arinen beteteko eskatu bearko leuskio, nire eritxi apalean.

Eta zer albaitero, aretzako sorosle, farmaziako beargin eta Gurutzgorrikoei jagokenez?

Iniak MARTIARTU

BIDEAN

Nire langille-denboran, ez dot euki beste ipar-aririk, lanen elburua lortu baino, beste inguruko gauzak kon-tuan euki gabe. Bide eraginkor onek, gaur arte, gauza asko ekarri daust: onerako? Txarrerako? Azken batez poza, nere baitan ardurak bete dodazelako, edo alegin guztiak egin dodazelako.

Izakera onen etorria, aurka beti kokatu jat: nire aurrean amaitubako gauzak, oker, gogo aundi barik egindakoak eta abar agertzen ziranean. Bai, begi-bela-rrira etorten jatazan, Frankok edo bere gobernuko oldoz-menak, burnigintzako bidetik, nire lanak, Espaina euren eratara zuzentzeko naian.

Ori dala ta, esan bearrezkoak dodaz: orduan abiadan ipini ziran eritzi oneik, elburuaren aurka zirela. Eta ika-ragarritzko kalteak lortu ebezan gure Euskalerrian. Batez be, gure erriak ekarzan gizon/emakume artean, etorkiz-ko indarra natur-legeen bitartetik elburuari begira, zati-tu ebelako. Zer esanik ez urrunggoko gizarte mailan, dirua jabetu zan lez, bata-besteari bultz egiten, nork-geiago beren aldera ekarteko. Orregaitik, gaur ikusten gara borondateko indar ezean, lotura barik; nortasunik gabe. Elburuaren ardurak, Arimarenak direlako; eta dirua gai dan lez, ordearen ardurazkoa "sekula be ez elburu!".

Baina, zelan lortu zan au. 1958an, nik 18 urte neuka-zala, aldakuntza gogor bat izan zan lanari buruz: ararte, lan-bideko arduraren mallak, jakinen bidea garaituaz eskuratu egiten ziran. Au da, guk lana bukatuten zanean erakutsi bear geuntson arduradunari; berak, an ikusten eban: jakintza, trebetasuna, gogoia, ontasuna, denbora eta abar. Ortik zabaltzen zan atea bakoitza bere neurri-iekuan kokatzeko. Baina, ainbateko lekutik itaun-erantzuna agertu zalako: "sabemos trabajar", "pues..., tene-mos que hacer mas". (baleikete Europa'ko jaurkintzetan asi zirela bide ori zabaltzen. Okerra benetan!. Orduan Ameriketari ziren ekonomilari ospatsuen, Friedman eta taldeen aolku-babesen gogamenak ontzat artu zirelako). Itaun onen ostetik, ez zan bear agurgarritzko jakituririk, lanak zuzen-bidetik eroateko, eta gizonak bere neurri lekutan kokatzeko; akulariak baino!. Or azi zan nirentzat, mendebal alde guztian izugarritzko lapurketa. Eta or gure ikaragarritzko alda-beerakada. Ez Francok etorki-zun ori gogoan euki ebalako, faziztak gordetzaille dira-lako, eta eskubitar oneik, sekula ez diralako aurretik joa-ten, beti egindako pillora joaten diralako. Franco, irun-tsi ebalako mendebalean sortutako eta geratu ezinezko aize-beltz indartsu ori. Gero!, asmatu eban, Europa'ko

kaisarkerien ez-ikusi egitea, eta Amerikarraren babes-pean, zelan alegindu bear zan, bere Espaina aundia egi-teko, eta berezko-erriak desagertzeko.

Garrantzi aundikoak ziran aiek 1958, 59, 60, 61'eko urteak Euskalerrarentzat, beti prest agertu ginalako ain-beste lan-bitartetik gure etxea biztuteko, bai gure gura-soak, euren zoritxarreko bizi denboratik gure gaztetasu-na jakiturian bideratzeko.

Gertu egon ziran beti gure arinagokoak, bai gu be. Ez zan bear gauza aundirik, lan-toki bat abiadan ezartzeko. Dana zan, erbesteko errietatik langailuak ekartea, gogo zarrarekin, eta gure indar iraunkorraz etenbako lanari ekin.

Batera izugarritzko borroka izan gendun gure izkun-tzari buruz. Eurok gure mingaina moztu gurean, eta guk geure elburua. Ebagi be zati bat egin euskuen, gaur, gure erriaren zorionerako, konpontzeko bidean josten asi garana.

Bai, gauza asko sortu eta sartu egin ziralako azkata-sunerako alegina geiago naaztuaz: Espaniatik atzerritar asko, Marx, Hegel, alderdi mota guztikoak eta abar gure banakuntzarako. A ta guzti, danak bear ziran, zati guz-tiak borrokara sartzen ginelako, eta olan ez ginen erri-koak bakarrik, atzerritar geienak sartu ziran euren erara, danon etsaia bastartzeko.

Onein etorkeran, niretzat urte-argiduna 1964koa izan zan, konturatu nintzelako, ez bakarrik gure mingaina moztu egin gure ebela, bai gure burua be moztuteko ale-ginean ibili zirela. Argibide orregaz, lan-tokian topo egin nintzalako konturatu barik, eta konturatzeko era berezia izan zalako.

Urte ortan (1964), joan ziran Paris 'en kokatuta dagoan Renault'eko lan tokira, gure lan-tokiko (Forjas de Amorebieta) ordezen bat a ikustera; eta oneik ziran: Rekalde'tar Jose Luis, injinerua (Maisua); Kanal'tar Agustin, jakituna; Lopez 'tar Jose Mari, arduraduna; eta Bilbao'tar Juan Karlos, langilea.

Itzulkeran, euren iker-ikasiak batu nebazan: maisua-rena, trebetasunean bakarrik zan; jakitunarena be bardi-na; arduradunarena, moldeeneko sail tokirako, zar-berri-tzeko burutakizun batzuk, gurdizkarentzako baino ez; langilea.., onek bai!, ekarri eban altxorra nire eritzirako. Itandu egin neutsonean, esan eban: "baina gu, zelan jainko joango gara orrei trebetasunean geiago egitera?"

Zergaitik?

Areik, brentsatan joten dabezelako ale geienak, eta brentsa bakotza ale bategaz urte guztian jo ta jo; gainera molde-ollak brentsa ondoan dagoz berotzen, prest egon daitezcan bear diranerako, eta eurak aldatzea bost-minutuan bakarrik egiten dabe; guk emen eun kilotik goragoko molde-mokorretan egiten doguzanak, eta aldatzeko ordu bat eta erdi gitxien bear doguzanak; gainera bost milla ale ilero geien, geien jo egiten doguzanak!

Ez bakarrik ori, amabi ola-tokitan banandutal. Eranztun neutson.

Or ikusi nabazan gauza asko. Leenengoa: eurok (frantsesak) aurre-ikustekoak zirela; neurri aundikoak, iraunaldi batera elduteko, bai Europan, bai Munduko Salerosten ingurutan. Bestela, eurak dana egitekotan, beste-ainbeste lan-toki egin bear ebezan, eta aurrera begitu ez gero... Gainera, salerosketara bidaltzen ebezan mozkin guztiak, eurenak ziran!

Bigarrena: konturatzea, Frantses, Aleman, Ingles, Italo, Polaku eta abarren, makin edo tresneri guztia, mozkin amaitzeko eta saleerosketan agertzeko, euren asma-agiria zala, eta bai asmagiriaz babestuta. Orrek ezan nai dau, eurak zirela gauza baten egarria agertzen zanean salerosteko inguruan nortasunezko egileak.

Baina guk ez. Guk, makinak erosi eta beste aldean langilea jarri; bien-bitartekoa, ontzi-betea kentzeko eta utzitutakoa ezartzeko; au, Europa bete arte zan. Europa'ren egarria asetu zanean, iraun-aldi baten sartu ginan; eta or, eurak agertzen dira nortasunezko egileak; gu, alderantziz morroi!

Orren errurik, ez gendun euki, eun da irurogei urtetik onantza ez dauskulako sekula itzi gure nortasun-azteraldiko biderik zabaltzen.

Beste era batera, bagara errukarriak bai; alegin guztia egin gendulako dirua ondoratzen, ardurako arloan ezer kontuan euki barik: "ordu bear zan beste lantokiak egitean; atzerritarren esku-bearra ekarten ezeri begitu barik, eta abar".

1980, 81, 82, 83an azi ginan konturatzen, aiek zortasunezko amarkada biak zer ekarri euskuen: langabezia; atzerritarrez beteta egotea eta aurrerako bide illuna. Iru-rak, arazo geiago sartuaz, gure euskeraren eta askatasunaren argia lortzeko.

Franco'ren benetako gogapena zan ?. Ez dot uste!; ez ziren eltzen alako ulermeneko goi-mallara. Euren gogapena izkilluen indarrean egon zan, eta ori zeartuten dauana da: Franco'k, Euskadi'tik bazterreratu gura ebalu bur-nigintzako arloa, beren "Polos de desarrollo'rekin ainbeste erri-alde geratzeko, euren erritxoak itziaz, eta Euskalerriko jakituria zabaltzeko. Bete euki dabelako goga-

men-azpian, gu sekula ez garala geratuko askatasuna lortu arte.

Irugarrena: Franco bakarrik ez, baina bai izan zan gai, len esan dogun lez, Amerikarren babesean, ekonomian bide-barri ori zabalduaz, sartalde guztia diruaren jabetasunak iruntsita geratu zalako.

Jakin-bidea ebagi zalako, eta nik sarri esan dodan lez: "GURE GIZA GARAI ONTAN, LELOENAK BE, BERE EZAR-LEKUA GALDU EGIN DAU". Bide onek ekarten dauan ondorioa gibel-beldurra da; eta azken batez, bata-besteen ikusi-ezina; bai etxean, lantokietan, alderdietan eta leku guztietan. Bakotxa, beren lekuan egon ez gero: ardura, lotsagizun, begirune eta alkar ondo ikusiak gara. Dana dala, begitu, diruaren billa joateak zer ekarri euskun: "jakin bidea ebagitzea; alkar ezin ikustea; gibel-beldurra gure artean; geienak, beren ezar-lekutan ez egotea; bata-besteen ikusi-ezina; ardura-gabekoak izkuntza'ri buruz ? jan-edateko xautzaile izateaz (consumistas), lurrari atera egiten dautson edertasun guzti-ekin be, bete ezina eta borondateko indarrak ez eukite orrek neurribako gogoak geratzeko; gaztetasun azko lotu ezinik. Gizona aitzu eginda, guk egiten dogula lurraz diru ori, gure arteko ordearen neurrirako. Or, sasijainkoa! Eta lokatzakin eginda dagon lez, berez apurtzen asi dana; edo gizona erotzen asi dalako!, ainbaten arin urten bearezkoa beren eragipenetik.

Esandakoagaitik, itaun bat agertzen da emen: "zerekin alegindu bear gara..., indarrak ez badauka arrazoirik!". Argi dago, elburuaren bidea artu bear dogula, gure arrazoiak, arrazoizkoak izan daitezcan. Europa'ren aurrean "ERRI BAT" agertu daiten. Euren begiak zarratuta egonda be, ikusi egingo dabelako euren aurrean dagoana txikerra izan arren "ERRI AUNDI BAT" dala.

Eta emen, edestitik zear, betiko dei bat:

"Ez abil adore barik, izan adi argiagoo, eta ikasi eragozpideen arazo batzuk baztartzen. Euroi aurrez-aurre eraso egiteaz, zauritu baiño ez az egingo. Inguratu egizak!, eta ikasi arerioen indarrak erabilten. Ina dan lez, biurkorra izan adi; bai ta, aizpikorraren antzera gibel-aundi" (CHRISTIAN JACQ 1996).

ATUTXA tar PAUL
ZORNOTZAN 1998'ko EPAILLA'ren 17 an



ZOZOMIKOTEAK

- Aurtengo Zezeilla (Otsailla) bigun dijoakigu; baña, Martia agertuko da gogor.
- Martiak kalte aundiak egingo ba'dauz, Apirillaren laguntza bear dau.
- Apirillaren laguntza? Zertan ari zara?
- Badagoz gai oneri buruz Euskalerra'n esaera zaar batzuek.
 - Zer dira esaera onek?
 - ZOZOMIKOTEAK
 - Zozomokoteak? Ez dot sekulan orrelakorik entzun be.
 - Ona esaera oien muiña: Martia ebillen zezen gorri bategaz burruka bizian.
 - Zergaitik?
 - Orixen ez dakit, zergaitik ebillen asarre Martia Jauna; dakiguna da, asarrearen asarez, zezena erailtzea erabaki ebala.
 - Eta, ori lortzeko, zeer jokabide erabilli eban Martia jaunak?
 - Mendigaiñak, maldak eta zelaiak elurrez goraiño bete; ez zan belar-izpirik ikusten iñun.
 - Goseaz iltzeko asmoz, ala?
 - Asmoa bai, asmoa ustel gertatu zitzaion, ordea.
 - Ustel, nola?
 - Arte zaar baten babesean gorde eban beure burua zezenak eta Martiaren eraso-aldiari bizirik eutxi eutson, illa amaitu arte.
 - Eta?
 - Zezenak bere eskuetatik bizirik alde eutsola ikusirik, Martiak bi egun t'ardi eskatu eutsozan Apirillari. Eta Apirillak Martiari emoniko bi egun t'ardiak, orrek dozak ZOZOMIKOTEAK. Egundietan eraso eutson berriro Martiak zezenari, erailtzeko.
 - Baña, neuk Gipuzkoa'ko Goierrian beste era batera entzunda daukot.
 - Zela, ba?

- Martia artzai bategaz asarretu ei zan. Artzaiak eun ardi eta ari bat eukon mendian eta berak begi bakar bat aurpegi-an.
- Eta, zer?
- Martia eta Apirilla, euren artean berbetan diarduen, eta Apirillak:

"A, Martxo, Martxo
diat esker gaizto..."

Eta Martiak erantzun:

"A, Apiltxo, Apiltxo...
Ekatzak eun bi
ta erditxo,
artzai orri
kendu eiotzan
eun ardi ta arie
eta berari
ezkerreko begie..."

- Eta, zer gertatu zan?
- Emon eutsozan egunok eta orduan Martiak izugarriko ekaitzak eta urjolak sortu ebazan. Urak eun ardiak aurretik eraman ebazan koba-zulo batera eta barru aretan galdu. Artzaiak, berriz, aria lepoan artu, uretik aparte; baña, ariak aldamenara begiratzean, sartun eutson adarra begi bakar aretan eta gelditu zan begirik gabe. Arrezkero esan eida, ZOZOMIKOTEAK eguraldi txarrekin datoztela.

Anes Arrinda

EUSKALERRIKO URAK

Euskalerriko urak, erdian dan mendikateak banatzen dauz, ur batzuk Kantauri itxasora doaz, ibai naikoa txieketatik, orrek dira Euskalerra ezoko urak. Beste batzuk, ostera, mendikatearen egoaldera doaz, erreka guztiak Ibero errekarara sartzen dirala, eta ibai au Lurrarte edo Mediterrane itxasora doa.

Orrelan, toki batzutan urak banatzen dituan lerroa aurkitzen dogu, esaterako: Urkiola-gaiñean dan eleizako teillatutik, alde bateko urak Lurrarte itxasora doaz eta beste aldekoak, Kantauri'ra Antzera jazoten da Barazar gaiñean eta beste toki askotan be.

Garrantzi aundikoa da ba Euskalerrian, Mendikate au.

ZANGOTZA ETA IRUNBERRI'KO IKASTOLAK

Egun ederra benetan, Jorrailla'ren l'eko au: leenengo, merezigarrizko gizon baten laguntzagaitik. Bigarrena, aguraldi ona izan zalako. Eta irugarrena, izugarrizko poza artu gendulako, alango indarra eta geratu ezinezko abiadura artzen dauan Euskera, Naparrako Sartalde-ingurutik ikusiaz.

Epaila'ren 28an egin zan Euskerazaintza'ren azkeneko batzarrean; Latxagak, Apirila'ren l'ean Zangotzako Ikastolara joan bear gendula esan eustan. 9'ak lauren gutxiagoan urten gendun Donostitik, eta 10 eta erdirako bertan egon ginan.

Zangoza, Naparroako udal-erria da, eta 5.000 biztale inguru daukaz. Naiko aundia ikusten dana, gure antzean, egun bateko sartu-urtera bat egin ez gero.

Iparraldetik: Irunberri'k (Lumbier), Ledia'k (Liedena), eta Xabier'ek mugatzen dabe; Ego-aldean, Napat'ar Kaseda'k; Eki-Ego Aragoi aldean, Sos del rey catolico'k; Sortalde, Aragoiaz muga egiten dau; Sartalde edo Mendebale, Aibar'ek eta Sada Naparrak mugatuaz inguratuta geratzen da.

Kilometru laukiak 698 daukaz, eta Zangotzan bertan Irati ta Onsella ibaiak Aragoiko ibai-nagusira botaten dabez euren urak, eta ibarrari indar aundia emoten dautsoe.

Erri zaarra da bera, eta erromatarren garaiko aztarnak, ugari eta balio-aundikoak argiratuta daukaz. Aitz-gogor deritxona (Rocaforte), moruen aurkako denboratan; aiek, Aragoiko lurraldeetatik etorriaz, Iruña menperatzeko bidea artzen ebenean. Gaztelu ederra eta oso indartsua, gaur ondo apaindua ikusten dana, goratu eban XI'garren mendean, Antso Ramirez V'garrena erregeak 1076-ko urtean; bai moruen aurka, bai Aragoi'tarren aurka. 1512'an, Alba'ko dukeen gudari-taldeak menperatu eban, Aragoiko Fernando'k (católico) Nafarroa menperatu ebanean. Eliza ederra be badauka: Santa Maria la Real deritxona, XI'garren mendekoa.

Euskalduna izan zan Zangotza'ko erria orduko denboretan.

Zangotza'ko Ikastolara eldu ginanean, Latxaga'k itaundu eutson umetxo bateri zuzendariari buruz, eta umeak Beltza ta Igoa'tar Maria'rengana eroan genduzan. Maria'k, zuzendaritzako ordezkoa aurkeztu ebanean (zuzendaria ogeratuta egon zalako), ordezko onek Maria'ri esan eutson: bera be bazala naikoa gure galderai erantzuteko, eta alan itxi ginduzan.

Batzutan, ba dira berez aukera bereziak olangoko lanetan, gure nezka oneneitariko batekin topo egiteaz alkar mintzatzeko, eta au, olangokoa ba'da: begi-zorrotz, ulermendun, eta somakaria izanda, arpegiaren politasuna, bere liraintasunezko irripar zeargiak in osotuten dau, arteko alkar-izketak alaituz.

1972-ko urtean jaio zan Etxarri Aranaz'eko baserri baten. Bere sendia, gurasoak eta anai bik osotzen dabe. Ikastolan ikasia da KOU'rarte, eta nekazaritzako lan-bizitzatik etorri arren, Ingles-Filologiako lizentzi-maila irabazikoa da, Iruña'ko Ikastetxe-Nagusian asi eta Deustun bukatu.

Iruña'ko Kanpion-Ikastaroan bete eban bere ogi-bideko leenengo urtea; bigarrena, Iruna'ko Amaiur-Ikastolan; eta irugarrena, aurtengoa, bertan, Zangotzako ikastolan. Itaun garaia eldu zala ta, Latxaga asi zan bere zerrendatik:

* Zenbat aur daukaz gaur ikastola onek?

– Berreun bat gutxi gora beran!

* Zenbat eta nungo andereño/maixuk osotzen dabe irakasleen taldea?

– Zuzendaritzan: Biurrun'tar Xabier. Ordezkaritzan: Seguro'la'tar Jose Xabier (Ataun'darra); eta 19 andereño/maixu'az. Onetatik, 9 Nafartarrak dira; 6 Gipuzkoarrak; 2 Bizkai'tar; 1 Iparraldekoa; eta 1 bertakoa, Zangotzakoal.

* Nungoak errikoak dira ikastola onek daukazan ume-txoak?

– Inguruan dagozan erritxo onetatik: Irunberri (Lumbier), Xabier, Ledia (Liedena), Gabarderal, Zare (SADA), Moriones, Lerga, Iesa, Zangotza (Sanguesa), Aibar, eta Kasedal.

* Etzairik bai ikastolaren aurka?

– Bildur apur-bat gurasoen artean. Apaizak be... Batzuen itaun zitalak: Zertarako bear dozu euskera? Euskerarekin nora joan zeinteko? eta olango lelokeriak

* Euskal-sendirik ezagutzen al dozu?

– Inor ez, euskal-berri izan ezik!

* Ba alda Euskal-girorik erri onetan?

– Bai!, oso ona.

* Zure gogokoa alda erri au?

– Oso atsegin jat!

* Zenbat biztanle daukaz erri onek?

– Bost milla inguru!

* Euskal-elkarterik ezagutzen dozu?

– Basa-jaun elkartea!

* Dantza-talderik errian?

– Bai!, Trokamador taldea!

* Zelan asi zan ikastola?, Nafarroa Oinez?

– Berak ez ekiala gauza aundirik ikastolaren azierari buruz, eta Nafarroa-Oinez'eko erakundeen arteko maixu bat dagoala bertan, ta bere billa joan zan.

Bere-ala agertu zan Larratza'tar Juan Luis'ekin; eta beste gela batera joan orduko gure lana beteteko, Latxaga'k, argazki batzuk atara ebazan, Maria'ri imetxoakaz batera, bai ikast-etxea'ri be.

Larratza'tar Juan Luis, 1950'eko Apirilla'ren 30'ean Etxarri-Aranaz'eko errian jaio zan.

ALBISTEAK

Bere gurasoak, Euskaldunak izanda be, etxean sekula ez eban berbarik egin politikaren buruz; baina esaten dau, bere umetxo denboratan euskeraz jakitea, arrokeriz eroaten ebal.

Latxaga'k itandu eutson:

* Eta zelan lortu zendun irakasle izatea?

– Gazteizen asi neban eta Ezkoriaz anaitu. Lazkao-tik 1966'an alde egin neban. UFESA'ko lantegian asi nintzan lanean; bost urte bete nebazan an, 1973-74'ko greba gogorak euki genduzan arte. Kaleratu ta espetxeratuak izan ginan, eta aske itxi ginduezanean Nafarroako talde baten sartu nintzan. 1977-ko Maiatza'ren 2'an Ikastoletako-Elkartean asi nintzan, 1989'an itzi neban arte; andik aurrera, iru urtean, itxita auki nebazan euskerazko ate guztiak. 1994'an sartu nintzan bertan, Zangotzako ikastolan gaur arte.

Latxaga'k itaundu eutson:

* Eta ainbaten idatz lanik bai?

– Bai!, Deian, Argian, Egin, Diario de Navarra, 80, 90 en bat artikulu!

* Nafarroa-Oinez'eko jai-aldia, zenbat urteetan antolaten dozue?

– Aurtengoa, bigarrena da, leenengoa 1987'an ospatu gendun!

* Elburuak?

– Gizartea arduratu; azpi-egitura aurrari buruz; eta aleginak dirua ekarteko!

* Noz egin zan ikastola au?

– Erosi ziran 30.000 metru lauki; 1989'an goratu gendun ikastola, eta Iraillan asi ginen lan egiten. Etxe onen egitura egin zan 240 umerentzat, 30 aur bananduta gela bakoitzean!

* Zenbat ordaindu bear zenduen?

– Guztiz 130 milloi ziran. Ez dogu dana oraindik ordaindu; gainera kanpoko larrain au 1996'ko udan egin gendun, beste 14 milloi pillotuz!

* Gaurko zorak zenbat dira?

– 60 milloi! Baina gure itxaropena ez da geldirik egotea. Aundiagotu gura dogu ikastola aur-ekuntzarentzat, 0 urte-tik 6 urteraino, eta ori 160 milloi geiago dira!

* Zenbat diru gutxi gora-bera batuko dozue jai-aldian?

– 60 milloi 'ekin gogoratzen dira elkartekoak. Dana dala, gura doguna da, zorak ordaindu eta bereala asi egitarau barriekin!

* Zenbat lagun dabil erakundean orretarako?

– Irailletik asita 12 lagun, bakoitzak bere arduraz!

* Zenbat ordaindu bear dozue, jai-aldiaren egitarauagaitik?

– Bost milloi! Benito Lertxundi be ekarten dogu uztaila'ren 4'rako; erriak eta aurrak ikasi daien euskal-musikako doñua .

* Nori ezkintzeko jai-aldiaren elburua?

– Ez dakie ziur nori: Leire'ri?, Xabier'eri?, Zangotza'ri?

* Eta zergaitik ez Nafarroako gizon aundi bateri?

– Ez da burutasun ori edozelakoa, ez; euroi esango dau-tset!

* Zelan asi zan ikastola au, eta nortzuekin?

– Berak ez ekiela gauza gitxi baino erretaz, eta Aramendia'tar Pedrogana bigaldu ginduzan.

Latxagak, argazki batzuk atara eutsozan Juan Luis'eri, eta agurtuaz joan ginen pastel-gintza ori billatzen.

Aurkitu gendun pastel-gintza eta barrura sartu ginen; itandu gendun an egon zanari, eta bera izan zan Aramendia'tar Juan Pedro. Somakaria eta alaia agertu jakun; bai ulermenduna zala laster konturatu ginen. Euskeragaitik guztiz ausarti; bai bizi-bizia bere euskaltasunen arrokeri bitartez.

Bere sendiaren sustraia Etxarri-Aranaz'etik datorrela esan euskun, eta pastel-gintza, eun urtetik onantza daukiela zabalik.

Aurkezpena eginda, eta berandu zalako Irunberri'ra bazkaltzen joateko, Latxaga asi zan bere zerrendatik itaunka:

* Noz, nortzuk, eta zenbatek asi zenduen ikastola?

– Asi ginen 1978'an, 22 aurrekin, ume-zain antzera. Lau andereño euki genduzan: leenengoa, Iruña'ko Errozain'tar Karmele; bigarrena eta irugarrenarekin ez zan gogoratzen; eta laugarrena Iparalde'ko Bidar'tar Katerin.

* Zelan asi zan ikastolaren premia?

– Euskaldunak garalako, aaztutako euskeraren bidea aurkitzeko, eta aurraren bitartez, benetako Nafarraren nortasunera eltzeko. Asieran alkartu ziran: Beunza'tar Xabier, ezkondua eta seme-alaba barik; Aisa'tar Alberto, ezkondua eta seme-alaba nausiekin; eta Ibañez'tar Pako maixua!

Leenengo tentaldian, bazterreratuak izan ziran; baina, bigarrenean eskuratu eben Udal-Etxeko Biltzarra, eta "Casa Txaparro'n" asi ziran aurrerantza, arazo aundiekin. Ni, leenengo ikas-aldian sartu nintzen umeakaz. Irunberriko ikastolarekin be, alkartu bear gendun aurrera egiteko. Ezarri gendun gurasoen-elkartea, ikastoletako-elkartea asi zan arte!

* Dantza talderik bai?

– Bai!, eta ederra gainera: 40 dantzari, 10 txistulari, eta ia 50 dantzaki ez-berdinekin!

* Nork jarri eban dantza-taldea!, eta txistularirik euki zenduen orduan?

– Ezarri dantza-taldea guk, lagunuen artean egin gendun: Abadia'tar Jose Xabier; Aramendia'tar Pedro; eta Iragi'tar Xisto. Onen aita!, Iragi'ren aita izan zan txistularia!

* Aurka-ekintzarik bai ikastolaren buruz?

– Leenengoetan bai!, eta gogorak gainera: umeak ikaratzeko, leiarrak arriekin apurtu euskuezan sarritan. Politika buruz, ezidura gogorak. Aurrekoa ikus-ezina, eta abar.

Onekin, eta berandu zalako, bete egin gendun gure lan-egarria Zangotza'ko ikastolari buruz; eta Latxagak, Juan Pedro kaleratu eban argazki batzuk atarateko. Orduan Aramendiak esan eban: "au txapel barik ezinda egin!", eta bere-ala joan zan txapelaren billa.

– Agurtu-orduan, itaun egin eutson Latxagak ia dakien edo ezagutzen jatetxeen bat Irunberriin.

– Bai!, Dantzari-jatetxea, eta esan nik bialduta zoaziela bertara, agurtuaz batera.

Irunberriera eldu ginanean, Dantzari-jatetxeagaitik itaun geuntson mutiko bateri, eta laster aurkitu gendun. Iar-nabarrak, gatz-ozpinak, bildots'en saieskia lur-sagar erre-gosi'ekin, ardangorri eta akaita jan-edanaz, ondo baskalduta eta merke gainera, prest egon ginen azkeneko ekitaldia beteteko ikastola'ri buruz.

Irunberri, ez da aundia, baina bai polita. Mendi-bizkar

baten exerrita dago; eta bere Eki-Ego barren-aldetik, Irati ibaia lasai doa. Mugatu egiten dabe Iparraldetik San Bizente'k, Ripodas'ek eta Domeño'k; Sortaldetik Leire'k, Iesa'k eta Jabier'ek; Ego-aldetik Zangotza'k eta Aibar'ek; Sartaldetik Iabar'ek, Aldunate eta Nardues'ekin inguratzen dabe. Zangotza'ren Merindadekoa da; eta beren lurraldeko azalera kilometru laukiak 52'9 daukaz.

Oso zaarra da bera: bee-Paleolitiko aztarnak agertu dira; eta gaur arte, zer artu-emon bizi-bizia eta betea euki dau bere etorkeran, erri txikerra izan arren. 1540 biztanle daukaz gaur, eta ondino geratzen dira euskaldun batzuk.

ARANGOITI-IKASTOLA irakurri gendun ate bateko goiko aldean, zurezko txartel baten; eta larrain erdian oroit-arri bat naiko aundia, ipinten ebana: "A DON JOAKIN LARREGLA URBIETA. HIJO PREDILECTO DE LUNBIER EN SU CENTENARIO" MDCCCLXV-MCMLXV bere irudia goi-aldean daukala. Aurreko aldean, ezkuz egineko igaropide budinezkoa alde batetik bestera, ate itsularia erdian daukala.

Etxeko bateri itandu geuntson zuzendariari buruz, eta onek urrutizkinetik deitu eutson Jimenez eta Rekalde'tar Maria Josefa'ri. Esan bearra daukat, ikastola aurrean agertu arte, eta bertan topo egin genduen guztiekin, euskal-arnasa ederra euki ebela, eta guk, gozo-gozo artu gendula.

Maria Josefa, ulermenduna eta jakituna agertu iakun; ezkondua, bertan ikasten dagozan seme-alabekin. Begiraldi zabala eta guztiz argia; zain-dardara apur bategaz, baina unetxo baten be ez eban galdu bere sen ona. Zintzoa eta benetan abertzalea.

Sartueran esan euskun (enaz gogoratzen nork), etxea emon eutsela Lekaime-Laguntza'ri, eta onek ikastolari.

Jarri ginen aurrean ezar lekuetan, eta Latxaga asi zan itaunekin:

* Noz asi zan ikastola?

– Orain 20 edo 18 urte!

* Zergaitik ikastola?

– Euskaldunak garela gogoan daukalako, eta Nafarroa askoz obia dalako, gaur-egun goi aldean gure bearrezko eginkizunak bideratzen daukaguzenak baino!

* Eta ori?

– Euskera eta Euskalduna, argia, zabala eta aurrerakoiak diralako. Irunberrin orain 18, 20 urte zaarrak euskeraz bera egiten eben; gaur zoritxarrez, banaka baino ez. Kontuan euki bear doguna da, Euskara eskuratzeko giltzak, ikastoletan daukaguzela. Orretarako eta orregaitik, atzea emon geuntson "escuela nacional"-eri, eta aurrera tiretu gendun bakar-bakarrik gure lanarekin.

* Nortzuk asi ziran ikastolakin?

– Asi ziran 1980'an Balda'tar Karmelo;" Napal'tar Pedro, Anso'tar Esteban, Iturbide'tar Manuel, eta au izan zan ikastolako leenengo lendakaria. Euki gendun leenengo andereñoa: Urdiaingo Aldatz'tar Izazkun zan, Irunberriko mutil batez ezkondua; bere seme-alabak be ikastolara sartuaz.

* Gaur zenbat andereño/maixu daukazue?

– Aldatz'tar Izazkun Urdiaín'ekoa eta zuzendaria; Txomin Uarte-Arakil'ekoa; Beorlegi'tar Ana Zangotzakoa; Eta Uriarte'tar Ana Irunberrikoa.

* Zelangoak ziran asierako denborak?

– Oso gogorak!; eta aurrera egin gendun, Zangotza'ko'akaz alkartu ginelako. Geroago, Zangotzakoak ez eben gura erritik aurrak atara eta bakarrik erabagi eben aurrerantza joatea, umeak 6 urtetik gorantza euskera ez galtzeko.

* Zelan ordaintzen da ikastola?

– Ele-jakintzako-politikaren laguntza bidez!

* Zelan doa erriaren ogi-bidea?

– Guztiz atzerantza, lan-tokien ezagaitik!

* Zenbat aur daukazue ikastolan eta zenbat dagoz errian?

– 110 aur dira guztiz, eta onetatik 62 ikastolan daukaguz. Baina borroka bizia da gure gaurko egoera, eredu lez "D" gura dogulako, gurasoen artu-emonagaitik, agintzaileen menpean egon barik!

* Umetxo guztiak emen daukazue?

– Ez, aur txikitxuenak beste leku baten daukaguz! Maria Josefak esaten dau: %50'etik gora dirala izen-artukoak ikastolarako; baina nik urrinetik irakurri dot sarrean dagoan erakusmeneko-olean, %80 direzela.

* Diruaren beste iturri batzuk bai?

– Bai!, Euskal-Kantaldi Txapelketa eta abar, ondorio onarekin.

* Dantza talderik bai?

– Bai!, gainera andereñoak dira txistulariak.

* Aurkako'rik bai?

– Geratzen dire gibel-beldur apur bat daukenak, baina geienak gure aldera jokutzen dabe!

* Ezagunen bat ikastolako-elkartetik izan ezik?

– Bai!, Nafarroako aldundian bear egiten dauena Erbiti'tar Mari Sol!

* Ze ospakizun abestuten direz erri onetan?

– Euskalerrian abestuten diran guztiak!

* Eta gabeko euskaltegirik bai?

– Bai!, eta 36 ikaslekin!

Urten gendunean, Latxagak argazki batzuk atara eutsozan Maria Josefa'ri, eta agurtuaz, gu Ripodas'erantza joan ginan, an euskal-zale aundia izan zan Garde'tar Martzeliño apaiza'ren anai-arreba lagun-miñak ikustera.

Argi dago, altxor aundia daukagula etxean, gure gazte eta gurasoen artean. Onek bizitza emoten dabe euskera eta nortasunagaitik, argi dago; baina konturatu bear gara, emen ikusten dan lez, zeozer daukagula artean, ostopo edo arazo egiten dauana aurrera joateko, garbitasun eta eragiletasun obiangoak eukiteko.

Arazo ori ez dago gure artetik kanpo, gure artean baino. Baleiteke zeozer egin bearrezkoa daukagula, arazo edo zikinkerio gure artetik atarateko eta zaramara botateko. Erakunde barri baten bidez? Ikastolako-elkartean, arlo bat berentzat bakarrik ipiniaz bide okerrekoak zuzentzeko? Onularitza baten bidez? Oker dagoan lekuan, txaplatak ipintea, zatarkerian baino ez da geratzen; eta aurrera tiretu ez gero...

Ain latza ez da, elburua'ri, gure EUSKERARI, NORTASUNARI, maitasunaz begitutea ba! i iBAINA EUSKAL-GIZADIA!! Orretarako "BURUA MAKURTU EGIN BEAR DA". Eta ori...

ATUTXA tar PAUL
ZORNOTZAN 1998'ko APIRILA'ren 11'an

EUSKAL ESAKERA ZAARRAK

- Abenduko eguna, argitu orduko iluna.
Aarrausi luze, logura edo gose.
- Asko badok, asko bearoko dok.
- Askoren mina, zoroen atsegina.
- Astegun guztiak balira jai, alperrak ori nai.
- Bilbao, an be dongeak birao.
- Eguzkia nora, zapiak ara.
- Etorkizuna, kontakizuna.
- Etxe utsa, asarre utsa.
- Etxera orduan, basora.
- Ez dago eriotz aberatsik, ez ezkonta pobrerik.
- Ez eukia, gorde uts.
- Ez jan eta ez lan.
- Ezin txapel baten buru bi sartu.
Gabon, daukanak ez daukanari emon bear sarri.
- Gabon gabontzeta, gabon errezeta, gure Jauna jaio da
ta jo daigun krisketa.
- Gindea gozo dala, min da.
- Gizon ordiaren etxean, aizea franko goizean.
- Gogoa non, oina an.
- Gogozko lekuan, aldatsarik ez.
- Goiz gorri, arrats euri.
- Gozoagoa beti, auzoko ogia.
- Gure katuak buztana luze, berak legez besteak uste.
- Agina dabilenean, sabela pozik.
- Au aizearen epela, airean dabil orbela, etxe onetako
jende leialei Jainkoak gabon daiela.
- Intxaurrek bost, otsak amabost.
- Izena aundi, izana txiki.
- Kanpoan uso, etxean otso.
- Mendiko txoriak, mendian pozik.
- Norbera zelango, besteak uste alango.
- Nori berea, ori da zuzenzidea.
- Onak on dirala, obeak oba.
- Ondo eginaren pagoa, ate osteko paloa.
- Osasuna, munduko ondasuna.
- San Andres, bart egin dot amets, zeurez eta neurez.

- San Andres, lau-kopautan lau tremes, bosgarrena
saman trabes.
- San Andres, maaia paratu ta ogirik ez.
- San Andres, txarria askan trabes.
- San Simon eta San Juda, negua eldu da.
- Santa Katalina noiz? Besigutarako goiz.
- Santo Tomas, bukata egin eta ogia naas.
- Santo Tomas, egunik laburrena.
- Santo Tomas, txorizoa eta ogia.
- Santo Tomaseko periak, etxe askotan komeriak.
- Santu-santen artean, orma lodi bat bitartean.
- Sareak urrago, arrainak estuago.
- Su barik, ez da kerik.
- Txarri goseak, ezkurra amets.
- Txori bakoxtari, eder bere abiea.
- Uste barri, itsuak be igarri.
- Usteak, alde erdia ustel.
- Zor zaarra, zor txarra.

BERBALAPIKOA

- Bukata** = leixiba
- donge** = txar, gaizto
- franko** = eurrez, ugari
- kopau** = jankopu
- ots** = zarata
- tremes** = etxean egindako ogia

INIAKI MARTIARTU
1998ko jorrailean



ERDU GEUGAZ!

IBILALDIA-98 MUNGIAN

Aurten, Bizkaiko ikastolen jaia, IBILALDIA- 98, Mungian egin da: Antolatzaileetarikoko bategaz, Iñaki Goirizelaia mungiarragaz, egon gara orreri buruz berbetan. Bera da jai andi orren koordinatzaile nagusia. Ara, zer esan deuskun!

ZER– Aurtengo IBILALDIA-98 maiatzaren 31an egin da. Mungialdeko Larramendi Ikastolak eratuta, Mungian bertan eratu be. Zer dala-eta aurton Mungiara?

IG.– Dakizuen lez, IBILALDIA urtero antolatzen dan jaia da. Bizkaiko ikastolen eta euskerearen aldeko jaia da. Orain artean, ez da Mungian egin izan eta Larramendi Ikastolan pentsatu genduan bezala, sasoi IBILALDIA Mungian egiteko. Ori zala-eta, Bizkaiko Ikastolen Federazioan gure proposamena aurkeztu genduan eta aukeratuak izan gintzazan. Uste dogu, oso aukera ona dala, olako jai polita Mungian egiteko. Esan dodan lez, bazan sasoi.

ZER- Zeintzuk dira lortu gura dozuezan elburuak?

IG– Olako jairen bat indarrean ipinten danean, elburu ezberdin asko egoten dira. Alde batetik, euskerea eta euskerearen erabilpena zabaltzeko elburu argia. Gure ustez, olako jaiak eragin polita eukiten dabe beti, au da, IBILALDIA egiten dan tokietan. Eta ez ori bakarrik, ez euskerearen erabilpena bakarrik, beste alde batetik, baita euskal kulturea eta euskal kultureagaz zerikusia daukan guztia be. Ori be zabaldu gura dogu. Badagoz egon elburu ekonomiko batzuk be. Aurten gure ikastolan oso inbertsino andiak egin doguz: eraikin barri bat egin dogu, aurtzaindegia indarrean ipini dogu... Ori guztiori dala-eta, elburu ekonomikoa be badaukagu, egindako inbertsinoei aurre egin aal izateko.

ZER– Larramendi Ikastola izena aitatu dogun ezkeron, azaldu eiskuzu berba gitxitan ikastoleak emoten dauan irakaskuntzea zelakoa dan.

IG– Ikastolearen irakaskuntzea, danok dakigun lez, irakaskuntza euskalduna eta kalitatezkoa da. Gu jo ta ke gabilz bearrean irakaskuntza euskalduna eta kalitatezkoa emon aal izateko.

ZER– IBILALDIA-98rako aukeratu dozuen leloa ERDU GEUGAZ dogu. Zer dala-eta aukeratu dozue leio ori?

IG– ERDU GEUGAZ leloa zer dala-eta? Ori, bai, itaun polita. Arrazoi asko dagoz. Alde batetik, ERDU Bizkaiko berbea da, berba zaarra. Mungian asko erabilten dana. Inguruko errietan erabilten da eta geuretzako oso berba polita da. Berba ori birreskuratu gura izan dogu. Gero, beste alde batetik, ERDU GEUGAZ leloaren bidez gonbidapen zabalada adierazo gura izan dogu. Gonbidapen zabal ori, zertarako? Ba, gure irakaskuntza proiektu euskaldun orretan eta jaietan be esku artzeko. Esku artu eta jaiak GEUGAZ gozatzeko. Beraz, ERDU GEUGAZ, gonbidapen zabalada, alaia eta irribarretsua da.

ZER– Maiatzaren 31an egin da, bada, IBILALDIA-98. Esango deuskuzu, apur gorabehera, zeintzuk diran eratu dozuezan ekintzarik nagusienak?

IG– Ekitaldi asko antolatu doguz orain artean eta ondino geiago antolatuko doguz. Gu IBILALDIA egun bakarreko jai erraldioa bakarrik ez dalakoan gagoz eta orregaitik zabaldu gura izan dogu jai ori urte osoan zear. Ori dala-eta, ekitaldi asko egin doguz. Adibidez, Mikel Laboa egon zan gure artean. Berak aurten egin izan dauan leenengo kontzertua izan da. Maria Bayo soprano ospetsuak Arriagan abestu dau IBILALDIAren alde.

Maiatzean, barriz, Benito Lertxundi egongo da emen. Oso kontzertu polita izan da eta bizkaitar guztiak entzun-bearrekoa. Beste alde batetik, maiatzaren 31an IBILALDIAren egun beratan, gauza asko egon dira, urtero izaten dan lez, bai kontzertuak, bai dantza taldeak, bai musikea, edozein motatako musikea... Nik uste dot, osogai guztiak egon dirala, oso egun polita emoteko.

ZER– Noiz asi zintzezan IBILALDIA-98 eratuten?

IG– IBILALDIA orain dala urte bete ta ilabete pare bat asi gintzazan antolatzen. Olako jai andia indarrean ipinteko aalegin andiak egin bear dira, batez be, antolaketan esku artzen dogun guztiok beste zeregin batzuk be badaukaguzala kontutan

IKASTOLAK

artuta. Sasoiz asi gintzazan eta orretarako batzorde asko bearrean egon dira. Or, lan andia egin dogu orain arte.

ZER— Erakuntza guztia egiteko bear andia egin bearrean egon zaree, ezta?

IG— Erantzuna. BAI! Argi dago olako montaketarean bat egiterakoan bear andia egiteko dagoana. Zenbaki bat aitatuko deusuet, adibidez, egun orretan 2.000 lagun bearrean egon dirala estimatzen dogu. Egun orretan 130.000 lagun etorriko dira IBILALDIARA eta lagun guzti orreei zerbitzu ona emoteko, jende asko bear da. Ori guztiori indarrean ipinteko, egun bakarreko enpresa andia montatzea dala esango neuke. Eta orrek itzelezko aalegin andia eskatzen dau.

ZER— Non eta noiz izango da datorren urteko IBILALDIA? Nork eratuta?

IG— Datorren urteko IBILALDIA Elorrion egingo da. Elorrioko ikastolea, danok dakigun lez, oso egoera larrian egon da. Baina, gure ustez, IBILALDIAREN eskutik ikastola ori aurrera atarako dogu. Oso toki berezian dago eta danon laguntzinoa bear izango dau berak.

ZER— Eskerrik asko!

Iniaki MARTIARTU
1998ko epailean



EUSKALDUN BARRIENTZAT



1



2



3



4



5



6



7




8



9

Marrazki onein artean bi dagoz bardiñak, badakizu zeintzuk diran?



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

Depósito Legal: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO